



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO OSOKOAK AP-68A ERABILTEKO “DIRU-LAGUNTZAK” EDO “GASTUAREN MUGAK” AZTERTZEKO ESKATU DEUTSO ALDUNDIARI

(Gernikan, 2020ko zezeilaren 19an). Gaur Gernikan egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoak arauz besteko proposamen bat onetsi dau, “emakidea daukan enpreseagaz diru-laguntzen ezarpena aztertu daiala” eskatzeko Aldundiari, “gastuaren muga sistema baztertu barik”, urtarrilaren 1etik Aldundia titular dan AP-68 azpiegituran.

Proposamena aurkeztu daben Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen aldeko botoakaz, EH Bilduren abstentzinoagaz eta Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia (PP) taldeen kontrako botoakaz onetsi dan ekimenak proponiduten dauenez, azterketa horrek, “beste batzuen artean, halan bada, aldean artean adostutako sistema ezarteko, egindako bidaien ganeko informaziorako prozedurea, iruzurra saihesteko beharrezkoak diran mekanismoak eta, inbertsinoa jaso beharko ditu”.

Jeltzaleek eta sozialistek, “Aldundiaren titulartasuna eta kudeaketea daukien eta ordaindu behar diran errepideko azpiegitura guztiak” gastuaren mugaren sistema barruan sartzea eskatu dabe ekimenean. Une honetan, AP-68 autopistaren kudeaketea enpresa baten esku dago 2026. urtera arte.

Bere ekimen propioa defendidu dauen EH Bilduren eretziz, Aldundiak “ez dauka atxakiarik” Bizkaiko errepideetako ordainketa sistema atoa ez homogeneizetako, urtarrilaren 1etik guztiak Aldundiaren esku dagozalako. “Ezin dogu akordioa gehiago luzatu”. Koalizino abertzaleko Raúl Méndez batzarkideak esan dauenez, akordio hori “maiatzean” lortu daiteke, 30 euroko gehieneko ordainsaria apliketako, A-8 autopistan, Artxandako tuneletan eta Supersur izenekoan 2017ko urtarriletik egiten dan moduan.

Kontxi Claver jeltzaleak, bere aldetik, denporea eskatu dau, beste alternatiba batzuk aztertzeke, ez diralako zertan izan behar Araban AP-68aren erabiltzaileakaz apliketan diran berberak.

Amaya Fernández PP taldeko bozeroaleak, bere aldetik, esan dau tamalgarria dala igazko apirilean Espainiako Gobernuak errepidea Euskadiren esku itzi



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

behar ebala jakin zanetik galdu dan denporea, eta ondoko Lurraldearen adibidea jarri dau. 2012tik “beherapenak” ari da apliketan, 15 bidaiatik aurrera %60ko deskontua eginez.

Pauso barriak bardintasunean

Osokoak, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu taldeen zuzenketa-eske transakzionala be onetsi dau, datozan urteetan Emakumeen eta Gizonen arteko Bardintasunerako Foru Arauaren garapenean “pausuak emoten jarraitzeko”. Hiru taldeak ados jarri dira, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deioen Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Sailari: “ 4/2018 Foru Arauan definidutako bardintasuneko estrukturakaz alkarlanean, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diran ekintzak diseinatu daizala, sail eta Aldundiko sektore publikoko erakunde bakotzak egin beharreko jarduketak zehaztuz. Ekintza horreek eta euren kronograma, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasuneko Batzordean aurkeztuko dira”.

Batzarretako hiru taldeek autortu dabenez, akordioa lortzeko aurretik “zesinoak” egin behar izan dira. Izan be, 2018an aho batez onetsi zan Foru Arauaren aplikazioa “ezin leiteke egun batetik bestera egin”, “goitik beherako” aldaketea eragiten dauelako Foru administrazioan eta teknikarien eta funtzionarioen artean, Arantza Urkaregik onetsi dauenez. EH Bilduko batzarkideak mozino bat prestau dau, baina azkenean baztertu egin dau, akordioa lortu dalako. Mozino horretan, Sail bakotzak eta Aldundiaren esku dagon sektore publikoko erakundeek egin beharreko jarduketak eta kronograma jasoko ebazan “Ekintzarako Plan” bat eskatzen zan Legealdi honetarako.

Elkarrekin Podemosetik eta Talde Berezitik (PP) kritikau egin da Bardintasunerako Foru Arauaren aplikazioan eta garapenean erakutsi dan “gelditasuna”. Aldundiak pausuak emon dituala onartu arren, “makineria ez dala ailegetan hautematen da. Emakumeok ezin dogu gelditasun hori onartu”, salatu dau Elkarrekin Podemoseko Eva Cabornerok.

Onetsi ez diran ekimenak

Osokoan Laneko Arriskuen Prebentzioaren, Barik txartelen iraungipenaren, Zaintzaileen Estatutuaren eta indarkeria matxistaren biktimen autortzaren ganeko beste ekimen batzuk be eztabaidatu dira, baina Osokoak ez ditu onartu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Foru Gobernua eusten daben taldeek (EAJ-PNV eta PSE-EE), Talde Bereziagaz (PP) batera, atzera bota dabe EH Bilduren aldeko eretxia jaso dauen Elkarrekin Bizkaiaren mozinoa, Aldundiak Laneko Ikuskaritzaren Lurraldeko Ordezkaritzagaz lan egin daian, Bizkaiko enpresetan kontrolerako egin behar dan lana hobetzeko. Erakundeak “ez dauka arlo horretan eskumenik”, esan dau laburbilduta Ekain Rico batzarkide sozialistak, Foru Gobernua eusten daben taldeen ezezkoa justifiketako.

Bizkaiko Batzarrek talde morearen beste ekimen bat be atzera bota dabe, Barik txartelen iraungipenaren ganekoa, hain zuzen be. Iraungipen hori “eragozpenak” ari da sortzen erabiltzaileen artean, “ikumenik bako” lehenengo txartelak, 7 urtetan erabili eta gero, iraungiten hasi diralako. Bere ekimenean, Elkarrekin Bizkaia taldeak Barik txartela barriztetea kostetan dan 3 euroak itzultzea, txartela doban izatea, bezeroaren arretarako bulegoetan behargin gehiago egotea eta komunikazino txarragoa daukien udalerrietan barriztetako puntuak jartea eskatzen eban bere ekimenean.

Eztabaidea txartelen iraungipenaren (7 urte) ingurukoa izan da. EH Bilduren eta Talde Bereziaren (PP) aldeko botoak jaso dituan ekimena atzera bota daben talde biek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), txartelak barriztau beharra baldintza teknikoek eragiten dabela defendidu dabe, enpresa hornitzaileek gehienez be 10 urteko epea aurreikusi ebelako. EH Bildutik txartelen iraungipena luzatzea eskatu da, sortutako arazoa konpontzeko eta jasangarriagoak diran eta ezelango kosturik ez daukien “ticketing” moduetarako “trantsizinorako” aukerea emoteko.

Bizkaiko Batzarrek, EH Bilduk, Mozino baten bitartez, Zaintzaileen Estatutuaren alderdi batzuk aldatzeko egin dauen ahalegina be ez dabe onartu. Aldaketa horreen artean, Aldundiaren esku dagozan egoitzetan aldi baterako egotaldiak eskaini ahal izateko behar beste plaza egotea bermatzea, zaintzaileen atsedean epealdietan prestazino ekonomikoa ez etetea edo senidetasun eskakizuna ez eskatzeko aurreikusitako salbuespena aztertzea egon dira.

Euzko Abertzaleak taldearen ustez, arlo horretan Estatutua “hedatzeko eta sendotzeko” fasean dago. Urtarrilaren 1etik Aldundiak neurri barri bat jarri dau martxan, zaintzaileen zaintzapean dagozan personak gehienez be 15 egun egon ahal daitezcan egoitzetan. Jeltzaleek esan dabenez, neurri horreek “kasuistika barrietara” egokituko dira, zaintzaileek atsedenerako daukien eskubidea handitzeko.

Batzarretako taldeak, Elkarrekin Bizkaiak indarkeria matxistaren biktimen autortzarako aurkeztu dauen arauz besteko proposamena onartzeko be ez dira ados jarri. Neurriak Talde Bereziaren aldeko botoa jaso dau; EH Bildu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

abstenidu egin da; eta Foru Gobernua eusten daben taldeak kontra agertu dira. Proposamenak, beste gauza batzuen artean, “lurraldeko udalerrri guztietan” oroimen espezifikora zuzendutako politika publikoak martxan jarri, eta lurraldean antolatutako sentsibilizazinarako jarduerak aurrekontuen bitartez lagundu gura ebazan.

Saioa amaitzeko, ez da onartu Talde Bereziak (PP) aurkeztu dauen arauz besteko proposamena, Gaztelugatxeko San Joan inguruetan 51 aparkaleku eta instalazioak eregiteagaz erlazionatutako “jarduketa guztiak” gelditzeko. Neurriak aldeko 17 boto eta kontrako 27 izan ditu, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeenak, hain zuzen be. Kontrako botoa azaltzeko esan dabenez, aparkalekua, inguru horretan turismoaren eta ingurunea babestearen arteko “orekea” bilatzeko Aldundiak planteau dituan neurrien artean dago. Beste hainbat neurriren arteko “azkenengo aukerea” da. Neurri horreen artean, autobusek bira egiteko plataforma bat instalatzea, sarbideak berrantolatzea, 200 ibilgailu baino gehiagok modu desegokian aparketea saihesteko seinale horizontalak eta bertikalak jartea eta horren eragina jasoten daben udalakaz (Bermeo eta Bakio) eta Ertzaintzagaz batera egingo diran trafiko arloko beste jarduketa batzuk dagoz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PIDE A LA DIPUTACIÓN QUE ANALICE “SUBVENCIONES” O “LÍMITE DE GASTO” POR EL USO DE LA AP-68

(Gernika, a 19 de febrero de 2020). El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia, celebrado hoy en Gernika, ha aprobado una proposición no de norma que insta a la Diputación “a analizar con la empresa concesionaria la implantación de subvenciones, sin descartar el sistema de límite de gasto” en la AP-68, infraestructura que es de titularidad foral desde el 1 de enero.

La iniciativa, aprobada gracias a los votos favorables de los grupos proponentes , Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, la abstención de EH Bildu, y el voto contrario de Elkarrekin Bizkaia y grupo Mixto (PP), comprende que dicho análisis “deberá incluir, entre otros, el procedimiento de información sobre los viajes realizados, los mecanismos necesarios para evitar el fraude y la inversión necesaria para, en su caso, implantar el sistema acordado entre las partes”.

Jeltzales y socialistas han incluido en la iniciativa que se implante el sistema del límite de gasto en “todas las infraestructuras viarias sometidas a peaje de titularidad y gestión foral”. En estos momentos, la gestión de la AP-68 está en manos de una empresa hasta el año 2026.

Para EH Bildu, que ha defendido su propia iniciativa, la Diputación “no tiene excusas” para no homogeneizar ya el sistema de peajes de los viales vizcaínos, ya que todos son de titularidad foral. “No podemos demorar más un acuerdo”. El mismo, según el juntero de la coalición abertzale Raúl Méndez, podría llegar “en mayo” , para aplicar un peaje máximo de 30 euros como ya se da en la A-8, los túneles de Artxanda y la Supersur desde enero de 2017.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La jeltzale Kontxi Claver, por su parte, ha pedido tiempo para testar otras alternativas que no tienen por qué ser las que se están aplicando en Araba con los usuarios de la AP-68.

Por su parte, la portavoz del PP, Amaya Fernández, ha lamentado el tiempo perdido desde que en abril del año pasado se conoció la transferencia a Euskadi de la carretera por parte del Gobierno español y ha puesto el ejemplo precisamente del Territorio vecino que lleva aportando “bonificaciones” desde el año 2012, con un descuento del 60% a partir de 15 viajes.

Nuevos pasos en igualdad

El pleno ha aprobado también una enmienda transaccional de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu para “seguir dando pasos” en el desarrollo de la Norma Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en los próximos años. Los tres grupos se han puesto de acuerdo para que las Juntas Generales de Bizkaia insten al departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad a que “diseñe, en colaboración con las estructuras de igualdad definidas en la Norma Foral 4/2018, las acciones necesarias para el desarrollo y ejecución de esta Norma Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres, especificando las actuaciones a realizar por cada departamento y por las entidades del sector público foral. Estas acciones, junto con el cronograma, serán presentadas en la Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.”

Los tres grupos junteros han reconocido que el acuerdo llega tras una “cesión” previa, ya que la aplicación de la Norma Foral aprobada por unanimidad en 2018 “no se puede hacer de un día para otro”, y supone “un cambio radical” para la Administración foral y para técnicos y personal funcional, ha admitido Arantza Urkaregi. La juntera de EH Bildu había sido la encargada de elaborar una moción que finalmente ha retirado como consecuencia del acuerdo, en la que pedía un “Plan de Acción” para esta Legislatura con cronograma y actuaciones a realizar por cada Departamento y por las entidades del sector Público Foral.

Desde las filas de Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto (PP), se ha criticado la “lentitud” de la aplicación y desarrollo de la Norma Foral. Pese a admitir que la Diputación ha ido dando pasos “se palpa que la maquinaria no llega. Una



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

lentitud que las mujeres no nos podemos permitir”, ha denunciado Eva Cabornero del grupo morado.

Iniciativas rechazadas

En el pleno se han debatido también otras iniciativas sobre Prevención de Riesgos Laborales, la caducidad de las tarjetas Barik, el Estatuto de Personas Cuidadoras, y el reconocimiento de las víctimas de violencia machista, que han sido desestimadas por el pleno.

Los grupos que apoyan al Gobierno foral (PNV y PSE-EE) junto con el Grupo Mixto (PP), han tumbado una moción de Elkarrekin Bizkaia, apoyada por EH Bildu, para que la Diputación colaborase con la Delegación Territorial de Inspección de Trabajo, a fin de mejorar su labor de control en las empresas de Bizkaia. La Institución “no tiene competencias en esta materia” ha resumido el juntero socialista Ekain Rico para justificar el no de los grupos que apoyan al Gobierno foral.

Asimismo, la Cámara vizcaína ha rechazado también una iniciativa del grupo morado sobre la caducidad de la Tarjeta Barik que está provocando “molestias” a los usuarios y usuarias debido a que están empezando a caducar, tras 7 años de utilización, las primeras “sin contacto”. Elkarrekin Bizkaia pedía en su iniciativa el reembolso de los 3 euros que vale renovar la Barik, la gratuidad de la tarjeta, mayor número de personal en las oficinas de atención al cliente, y nuevos puntos de renovación en los municipios peor comunicados.

El debate ha girado en torno a la caducidad de las tarjetas (7 años). Los dos grupos junteros (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) que han tumbado la iniciativa apoyada por EH Bildu y Grupo Mixto (PP), han defendido que la renovación de las mismas se basa en condicionantes técnicos, ya que las empresas proveedoras manejaron un límite temporal “máximo” de 10 años para las mismas. Desde las filas de EH Bildu se ha pedido que se amplíe la caducidad de estas tarjetas para resolver el problema generado y permitir una “transición” hacia formas de “ticketing” más sostenibles y sin coste alguno.

La Cámara vizcaína ha desestimado también un intento de EH Bildu, a través de una Moción, de cambiar algunos aspectos del Estatuto de las Personas Cuidadoras, como que se garantice la existencia de plazas suficientes para



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

poder ofertar estancias temporales en residencias dependientes de la Diputación Foral, no se suspenda la prestación económica durante el descanso de las personas cuidadoras, o se revise la exención prevista para la no exigencia del requisito de parentesco.

El grupo Nacionalistas Vascos cree que, en este asunto, el Estatuto está en fase de “expansión y consolidación”. La Diputación ha puesto en marcha desde el 1 de enero una nueva medida que permite que personas atendidas por cuidadoras puedan estar hasta 15 días en residencias, que se incorporarán, según los jeltzales, a “nuevas casuísticas” para ampliar el derecho al descanso de las personas cuidadoras.

Los grupos junteros no se han puesto de acuerdo tampoco para sacar adelante una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia para el reconocimiento de las víctimas de violencia machista. La medida ha contado con el apoyo del grupo Mixto; EH Bildu se ha abstenido; y los grupos que sustentan al Gobierno foral han rechazado la propuesta que, entre otras cosas, quería promover la puesta en marcha de políticas públicas de memoria específica “en todos los municipios del territorio”, y apoyar presupuestariamente las actividades de sensibilización que se organizaran en el territorio.

La sesión ha concluido con el rechazo de una proposición no de norma planteada por el Grupo Mixto (PP) para paralizar “todas las actuaciones” relativas a la construcción de un aparcamiento de 51 plazas e instalaciones en las inmediaciones de San Juan de Gaztelugatxe. La medida ha sido rechazada por 17 votos a favor, y 27 en contra. Estos últimos son los que han sumado Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos que se han defendido de la oposición diciendo que el parking forma parte de un conjunto de medidas que la Diputación ha planteado para buscar un “equilibrio” en la zona entre el turismo y la preservación del entorno. Supone “la última opción” de otra serie de medidas como la instalación de una plataforma para giren los autobuses, la reordenación de los accesos, la instalación de señalización horizontal y vertical para evitar que aparquen indebidamente más de 200 vehículos y otras actuaciones de tráfico con los ayuntamientos afectados (Bermeo y Bakio) y la Ertzaintza.